

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AYUNTAMIENTO DE ARRATZUA-UBARRUNDIA

2026eko hiri- eta landa-izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergak, ezaugarri berezienak eta zabor bilketaren gaineko tasa kobratzea

Honakoa jakinarazten dut: urriaren 15etik aurrera, eta azaroaren 15era arte, ondorengo ordainarazpenen 2026 urteari dagozkion ordainagiriak borondatezko epealdian kobratuko dira:

- Hiri- eta landa-izaerako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
- Ezaugarri berezidun Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
- 2. seihilekoari dagozkion zabor bilketaren zerbitzuaren gaineko tasa.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga.

1. Ordaintzeko epea.

Borondatezko epealdia: 2026eko urriaren 15etik azaroaren 15era.

Exekuzio-epea: 2026eko azaroaren 16tik aurrera, exekuzio-epea hasiko da, eta exekuzio gai-nordainak sortuko dira, bai premiamendu murriztukoak bai premiamendu arruntekoak, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean ezarritako epeetan.

2. Ordaintzeko lekua eta modua.

Banku-entitateetan helbideratutako ordainketak: ordainketa aurreko urteetan helbideratu dutenek ez dute inolako gestiorik egin beharrik izango, helbideratzearen kontua aldatu ez bade. Udala arduratuko da ordainketa bideratzeaz.

Helbideratu gabeko ordainketak: Ordainketa bankutik helbideratuta ez dutenek, borondatezko epean bakarrik egin ahal izango dute, etxean jasoko duten kobrantza abisuan agertzen diren banku bulegoetan, bai eta euskal administrazioaren "Mi Pago" ordainketa-pasabidean ere, erakunde horietan bertan.

3. Gomendioak.

Banku-helbideratzeen altak edo aldaketak, bai eta helbide-aldaketak ere, hurrengo jakinarazpenetarako, Arratzua-Ubarrundiako Udalari bidali beharko zaizkio eta 2027ko ekitaldian aplikatuko dira.

Hala zabaltzen dut, jende guztiak horren berri izan dezan.

Durana, 2026eko irailaren 18a

Alkatea

MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE